



ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

Hornidura eta asistentzia kontratua	Contrato de suministro y asistencia
Xedea: Kalefakziorako erregaia (biomasa) hornitu eta ekipoa mantentzea	Objeto: suministro de combustible para calefacción (biomasa) y mantenimiento de los equipos.
Jardunbide irekia Europar Batasuneko atalasetik beherakoa Izapidea: ohikoa	Procedimiento abierto inferior al umbral comunitario Tramitación: ordinaria
Espedientearen udal erreferentzia: Udalobr/2017/27	Referencia municipal del expediente: Udalobr/2017/27

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

AURKIBIDEA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

INDICE

- | | |
|---|--|
| 1. Kontratuaren xedea. | 1. Objeto del contrato |
| 2. Izaera eta araubide juridikoa. | 2. Naturaleza y régimen jurídico |
| 3. Lizitaziorako oinarritzko aurrekontua. | 3. Presupuesto base de licitación. |
| 4. Aurrekontua aplikatzea. | 4. Aplicación presupuestaria. |
| 5. Gauzatzeko epea. | 5. Plazo de ejecución. |
| 6. Jardunbidea eta esleipen-modua. | 6. Procedimiento y forma de adjudicación. |
| 7. Kontratugilearen profila. | 7. Perfil del contratante. |
| 8. Kontratistari ordaintzea. | 8. Abonos al contratista. |
| 9. Prezioak berraztertzea. | 9. Revisión de precios. |
| 10. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea. | 10. Acreditación de la aptitud para contratar. |
| 11. Eskaintzak aurkezteko epea eta bestelako betebeharrak. Pleguak irekitzea. | 11. Plazo de presentación y demás requisitos. Apertura de pliegos. |
| 12. Kontratua esleitzeko irizpideak. | 12. Criterios de adjudicación. |
| 13. Eskaintzak ohiz kanpoko balioak edo balio neurrigabeak dituela aintzat hartzeko irizpideak. | 13. Criterios para la consideración de que la oferta contiene valores anormales o desproporcionados. |
| 14. Agiriak eskatzea | 14. Requerimiento de documentación. |
| 15. Behin betiko bermea. | 15. Garantía definitiva. |

16. Kontratuaren esleipena.
17. Kontratua formalizatzea
18. Konfidentzialtasuna.
19. Kontratuaren arduraduna, obraren zuzendaritza eta obraren ordezkaria.
20. Zuinketa egiaztatzea eta lanen programa.
21. Laneko segurtasun eta osasun plana.
22. Epeak.
23. Kontratua ez betetzearen ondoriozko zigorrak.
24. Azpikontratazioa.
25. Kontratua betetzea.
26. Kontratua gauzatzeko orduan bete beharreko hizkuntza baldintzak.
27. Kontratua bertan behera uztea.
28. Bermealdia.
29. Likidazioa
30. Administrazioaren eskumenak
31. Jurisdikzioa.

I. ERANSKINA
KARATULA

16. Adjudicación del contrato.
17. Formalización del contrato.
18. Confidencialidad.
19. Responsable del contrato, dirección de la obra y delegado de la obra.
20. Comprobación del replanteo y programa de trabajos.
21. Plan de seguridad y salud en el trabajo.
22. Plazos.
23. Penalidades al contratista por incumplimiento de contrato.
24. Subcontratación.
25. Cumplimiento del contrato.
26. Condiciones lingüísticas en la ejecución del contrato.
27. Resolución del contrato.
28. Plazo de garantía.
29. Liquidación.
30. Prerrogativas de la Administración
31. Jurisdicción.

ANEXO I
CARÁTULA

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

KONTRATUA	CONTRATO DE SUMINISTRO Y ASISTENCIA
Xedea: Kalefakziorako erregaiaren hornidura (biomasa) eta ekipoen mantenimendua	Objeto: suministro de combustible para calefacción (biomasa) y mantenimiento de los equipos.
Jardunbide irekia Europar Batasuneko atalasetik beherakoa. Izapidea: Ohikoa	Procedimiento abierto inferior al umbral comunitario. Tramitación: ordinaria
KPH (Kontratu Publikoetako hiztegi komuna) nomenklaturaren kodetzea, asistentzia-kontratuaren xedeari dagokiona: 50531100-7	Codificación de la nomenclatura CPV (Vocabulario Común de los Contratos Públicos), correspondiente al objeto del contrato de asistencia: 50531100-7

1. Kontratuaren xedea.

Alde batetik, biomasa egokia hornitzea (ezpala, pelet, eta abar), Komentu kalean dagoen udal instalazioan erabiltzeko.

Bertze aldetik, adjudikaziodunak, bere gain hartuko du, kontratuak irauten duen bitartean, galdararen eta leku horretan dauden gainerako ekipoen mantenimendua.

Kontratua Baldintza Administratibo Berezien Agiri honetan ezarritakoaren arabera egingo da eta esleipendunak, onespeneraren adierazle gisa, sinatu egin beharko du kontratua izenpetzerakoan.

2. Izaera eta araubide juridikoa

Kontratuak hornidurako izaera **administratiboa** izango du, eta bertan jasotzen ez den guztian, ondoko legeek xedatutakoari jarraituko zaio:

- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoak arautzen dituen.
- Urriaren 30eko 30/2007 Sektorre Publikoko Kontratuen Legea onesten duena (aurrerantzean SPKL).
- Kontratua formalizatzen den dokumentua.

3. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua

Behar den informazioa izateko, azaltzen da 2016/07/28tik 2017/09/30raino fakturatutako kantitatea 51.629,46 €koa izan zela, Balore Erantziari buruzko Zergaren % 21a barne. Kwh prezioa 0,05025735 € (BEZa barne zen eta kontsumoa 1.027.301,68 Kwh.koa izan zen.

Lizitzaileek eginen duten eskaintza ekoizturiko kilowatt/orduko prezioarena izanen da. Kontratua indarrean egonen da urte batez eta luzatzeko aukera izango da.

4. Aurrekontua aplikatzea

1. Objeto del contrato

Consiste por una parte en el suministro de biomasa adecuada (astilla, pelet, etc.) con destino a la instalación municipal situada en Komentu Kalea s/n.

Por otra parte el adjudicatario se ocupará, durante todo el periodo de vigencia del contrato, del mantenimiento de la caldera y demás equipos instalados en dicho lugar.

El contrato se ejecutará según lo señalado en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, que deberá ser firmado en prueba de conformidad por el adjudicatario en el acto de formalización del contrato.

2. Naturaleza y régimen jurídico

El contrato tendrá **carácter administrativo de suministro**, y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en:

- Ley Foral 6/2006, de 9 de junio, de Contratos Públicos.
- Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, en adelante LCSP.
- El documento en que se formalice el contrato.

3. Presupuesto base de licitación

A efectos informativos se indica que la cantidad facturada desde el de 28/07/2016 hasta el 30/09/2017 ascendió a 51.629,46 €, con el 21 % del Impuesto sobre el Valor Añadido incluido. El precio del Kwh. era de 0,05025735 € (IVA incluido) y el consumo ascendió a 1.027.301,68 Kwh.

La oferta que realizarán los licitadores es del precio por kilovatio/hora producido. La duración del contrato será de un año, prorrogable.

4. Aplicación presupuestaria

Lizitazio hau esleitzeko ezinbesteko baldintza izango da esleitzeko unean aurrekontu-kreditua egotea.

Es condición indispensable para adjudicar la licitación que nos ocupa que exista crédito presupuestario en el momento de la adjudicación.

5. Gauzatzeko epea eta kontratuaren iraupena

5. Plazo de ejecución y duración del contrato.

Hornidura eta asistentzia ematen hasiko da kontratua sinatzen denetik 10 eguneko epean.

El suministro y la asistencia comenzarán a prestarse en el plazo de 10 días tras la firma del contrato.

Kontratuak urte bateko iraupena izango du. Dena den eta bi aldeak ados jarriz gero, kontratua gehienez 4 urteraino luzatu ahalko da, hornidura kontratuentzat 6/2006 Foru Legearen 170. artikulua ezarritakoaren arabera.

El contrato tendrá una duración de un año. No obstante y de mutuo acuerdo por ambas partes, podrá ser prorrogado, hasta un máximo de 4 años, tal y como establece para los contratos de suministro el artículo 170 de la Ley Foral 6/2006.

6. Jardunbidea eta esleipen-modua

6. Procedimiento y forma de adjudicación

Kontratu hau **jardunbide irekia** erabiliz esleituko da, lizitazioa Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuta.

La adjudicación del presente contrato se realizará por medio de procedimiento abierto, anunciándose la licitación en el Portal de Contratación de Navarra.

7. Kontratugilearen profila

7. Perfil del contratante

Ez da ezarri.

No se ha establecido.

8. Kontratistari ordaintzea

8. Abonos al contratista

Kontratistak emaniko hornidura hitzarturiko prezioen arabera kobratzeko eskubidea izanen du,

El/La contratista tendrá derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, del suministro prestado.

Ordainketa-helburuetarako, hilero igorriko du, dagokion hilabetearen hurrengo hilabeteko lehenengo hamar egunen barruan, epealdi horri dagokion faktura.

A los efectos de pago expedirá mensualmente, en los primeros diez días siguientes al mes que corresponda, la factura referida al mismo.

Udalak prezioa ordaindu beharko du faktura hartzen duenetik hogeita hamar eguneko epe barruan

El Ayuntamiento tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de recepción de la factura.

9. Prezioak berraztertzea

9. Revisión de precios

Kontuan hartuta kontratu honen iraupena,

Dada la duración del presente contrato no

ezinen da haren prezioa berrikusi.

10. Kontratatzeke gaitasuna egiaztatzea

Proposamenak aurkeztu ahal izanen dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeke inolako debekurik ez, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa frogatzen badituzte.

1. Enpresariaren **jarduteko gaitasuna** honela egiaztatuko da: **Pertsona juridikoak** direnean, eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez, non, non adieraziko diren beren jarduera erregulatzen duten arauak, eta, gainera, inskribatua egon pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan.

2. Enpresariak frogatu ahal izanen dute urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 49. artikuluan adierazitako **kontratatzeke debekurik ez dutela**, enpresaren deklarazio baten bitartez.

3. **Enpresariaren kaudimena**

Enpresariaren **kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** era hauetako baten edo batzuen bidez egiaztatuteke: finantza entitateen deklarazio egokien bidez, edo laneko arriskuen kalte-ordainak ordaintzeko aseguru badutela egiaztatzen duen agiriaren bidez.

11. Eskaintzak aurkezteko epea eta bestelako betebeharrak. Pleguak irekitzea

Enpresa lizitatzailleek, eskaintzak aurkez ditzakete hogeit eguneko epean, dagokion iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian iragartzen denetik kontatzen hasita

procede la revisión de precios.

10. Acreditación de la aptitud para contratar

Podrán presentar ofertas las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en prohibiciones para contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica.

1. La **capacidad de obrar** del empresario se acreditará, cuando sean **personas jurídicas**, mediante la escritura o documento de constitución, los estatutos o el acta fundacional, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

2. La prueba, por parte de los empresarios, de la **no concurrencia** de alguna de las **prohibiciones para contratar** reguladas en el artículo 49 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, podrá realizarse por parte de una declaración de la empresa.

3. **La solvencia del empresario:**

La **solvencia económica y financiera** del empresario podrá acreditarse por uno o varios de los medios siguientes: declaraciones apropiadas de entidades financieras o, en su caso, justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales.

11. Plazo de presentación de las ofertas y demás requisitos de las mismas. Apertura de pliegos

Las empresas licitadoras podrán presentar sus ofertas, en el plazo de veinte días naturales tras la publicación del correspondiente anuncio en el Portal de

Lesakako Udaletxean (Plaza Zaharra 1) bulego orduetan (8:00tik 14:00ra)

Interesatuena eskaintzak administrazioko klausula partikularren pleguan adierazitakoari lotuko zaizkio, eta haiek aurkezteak, klausula edo baldintza guztien, hala nola proiektuaren zein baldintzen erabateko onarpena ekarriko du, inolako salbuespen edo erreparatu aukerarik gabe.

Eskaintzak sekretuak izanen dira, eta haiek jendaurrean irekiko diren unera arte berdin jarraituko dutela bermatzeko neurriak hartuko dira.

Lizitatuak bakoitzak eskaintza bakarra baino ezin izanen du aurkeztu.

Arau horiek urratzen baditu, ez zaio proposamenik onartuko.

Proposamenak postaz, telefaxeaz edo baliabide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz aurkez daitezke baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein tokietan.

Proposamenak posta bidez bidaliz gero, enpresariak posta-bulegotik zein egunean bidali duen justifikatu beharko du eta, egun berean, telex, fax edo telegrama bidez, eskaintza bidali duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari. Jakinarazpen horretan espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta hautagairen izena adierazi beharko ditu.

Bi baldintza horiek bete ezean, eta kontratazio-organoak eskaintza jasotzen badu lizitazio-iragarkian zehaztutako epea amaitu ondoren, ez da eskaintza hori onartuko.

Edozein kasutan, aipatutako data pasatu eta hamar egunera dokumentaziorik jaso ez

Contratación de Navarra, en el Ayuntamiento de Lesaka (Plaza Zaharra nº 1) en horario de atención al público (de 8:00 a 14:00 horas).

Las ofertas de los interesados deberán ajustarse a lo previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su presentación supondrá la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna.

Las ofertas serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento en que deba procederse a su apertura en público de las mismas.

Cada licitador no podrá presentar más de una oferta.

La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

Las proposiciones podrán presentarse también por correo, por telefax, o por medios electrónicos, informáticos o telemáticos, en cualquiera de los lugares establecidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Cuando las proposiciones se envíen por correo, el empresario deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante télex, fax o telegrama en el mismo día, consignándose el número del expediente, título completo del objeto del contrato y nombre del licitador.

Sin la concurrencia de ambos requisitos, no será admitida la proposición si es recibida por el órgano de contratación con posterioridad a la fecha de terminación del plazo señalado en la invitación de licitación. En todo caso, transcurridos diez días siguientes a esa fecha sin que se haya

bada, ez da onartuko.

Eskaintza aurkezteko erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak bi gutun-azal itxitan aurkeztu behar dira, lizitatuak sinatuak eta adierazita zein den jakinarazpenak egiteko helbidea. Eta han gutun-azalaren izena eta esaldi hau idatziko ditu: "Lesaka - Eskaintza, kalefakziorako erregaia (biomasa) hornitzeko eta ekipoen mantenimendua egiteko kontraturako"

Gutun-azalen izenak hauek dira:

- **«A» gutun-azala: Administrazio-agiriak.**

- **«B» gutun-azala: eskaintza ekonomikoa.**

Gutun-azal bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kopia eskuetsiak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kartazal bakoitzean honako agiri hauek sartu behar dira, zenbakiz zerrendatuta:

«A» GUTUN-AZALA ADMINISTRATIO-AGIRIAK

a).- Aurkezturiko agirien zerrenda.

b).- Lizitatuaren edo bere ordezkariaren Nortasun Agiria. Beste pertsona edo erakunderen baten ordezkari jarduten den kasuetan, horretarako behar adinako ahalordea.

c).- Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eraketaren edo aldaketaren

recibido la documentación, ésta no será admitida.

Los medios electrónicos, informáticos y telemáticos utilizables deberán cumplir, además, los requisitos establecidos en la disposición adicional decimonovena de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

Las ofertas para tomar parte en la licitación se presentarán en dos sobres cerrados, firmados por el candidato y con indicación del domicilio a efectos de notificaciones, en los que se hará constar la denominación del sobre y la leyenda "Lesaka - Oferta para el contrato de suministro de combustible para calefacción (biomasa) y mantenimiento de los equipos".

La denominación de los sobres es la siguiente:

- **Sobre «A»: Documentación Administrativa.**

— **Sobre «B»: Proposición Económica.**

Los documentos a incluir en cada sobre deberán ser originales o copias autenticadas, conforme a la Legislación en vigor.

Dentro de cada sobre, se incluirán los siguientes documentos, así como una relación numerada de los mismos:

SOBRE «A» DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA

a).- La relación de documentos presentados.

b).- Documento nacional de identidad del/de la licitador/a o de su representante. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, además, poder bastante.

c).- Cuando el/la licitador/a sea una persona jurídica, escritura de constitución

eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskalaren zenbakia, inskripzioa beharrezko litzatekeenean aplikagarri den merkataritza-legeriaren arabera. Horrela ez balitz, jarduteko gaitasuna horrela frogatu beharko da: eskrituraren edo eratze-agiriaren bitartez, estatutuen edo eraketa-aktaren bidez, non adieraziko diren zein diren bere jardura erregulatzen duten arauak, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuak.

d).- Erantzukizunpeko adierazpena, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 49. artikuluan zehazten dituen debekuetako bat bera ere ez duela adierazten duena.

Aitorpen horretan adierazi behar da hautagaia egunean dagoela indarrean dauden legeek xedatzen dituzten zerga-betebeharretan eta gizarte-segurantzarekikoetan. Hala ere, eskaintza guztien artean hautatutako enpresariak, horren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu esleipena egin aurretik.

Nafarroako Gobernuaren Kontratisten erregistro ofizialak emandako inskripzio-ziurtagiria dutela egiaztatzen duten enpresek, ez dute aurkeztu beharko goiko a) b) c) eta d) ataletan eskatzen diren agiriak.

e) - Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala betetzen dituela frogatzen duten agiriak, aurretik zehaztutako moduan.

f).- Jakinarazpenak bidaltzeko posta elektronikoko helbide bat.

g).- Behin-behineko bermea. Lizitatzailleak

o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acta fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.

d).- Declaración expresa responsable de no estar incurso/a en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 49 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Esta declaración incluirá la manifestación de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, sin perjuicio de que la justificación acreditativa de tal requisito deba presentarse, antes de la adjudicación, por el empresario a cuyo favor se vaya a efectuar ésta.

Aquellas empresas que acrediten estar en posesión del certificado de inscripción en el Registro Oficial de Contratistas, expedido por el Gobierno de Navarra, quedarán exentas de presentar la documentación relacionada en los apartados a) b) c) y d) anteriores.

e).- Acreditación de la solvencia económica, financiera y técnica del licitador, en la forma señalada anteriormente.

f).- En su caso, una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones.

g).- Fianza provisional. El licitador deberá

1.000 €KO bermea jarria duela egiaztatzen duen agiria sartu beharko du. Behin betiko bermearentzat 15. puntuaren ezarritako edozein aukera erabiliz egingo da.

incluir un documento acreditativo de la constitución de la garantía de 1.000 €. Se hará en cualquiera de las formas establecidas en el punto 15, relativo a la fianza definitiva.

«B» GUTUN-AZALA. ESKAITZA EKONOMIKOA

SOBRE «B» PROPOSICIÓN ECONÓMICA

Eskaintza ekonomikoa, I Eranskinen ereduari egokitu.

Proposamen ekonomikoa duten B kartazalen irekitzea, ekitaldi publikoan egingo da.

Ekitaldiaren eguna eta ordua, aurretik jakinaraziko zaie lizitazailerik guztiei.

Proposición económica ajustada al modelo que se adjunta en el Anexo I

La apertura de los sobres B de proposición económica se realizará en acto público

La fecha y hora del acto será previamente anunciada a todos los licitadores.

12. Kontratua esleitzeko irizpideak

12. Criterios para la adjudicación del contrato

Kontratua esleituko zaio Udalarentzat ekonomikoki eskaintzarik hoberena denari.

El contrato se adjudicará a la oferta económicamente más ventajosa para el Ayuntamiento.

13. Eskaintzak ohiz kanpoko balioak edo balio neurrigabeak dituela aintzat hartzeko irizpideak

13. Criterios para la consideración de que la oferta contiene valores anormales o desproporcionados

Eskaintzak ohiz kanpoko balioak edo neurrigabeak dituela hartuko da aintzat honako kasu hauetan: Kontratu Publikoen 6/2006 Foru Legearen 91. artikulua ezarritakoetan.

Se considerará que la oferta contiene valores anormales o desproporcionados en los casos establecidos por el artículo 91 de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos.

14. Agiriak eskatzea

14. Requerimiento de documentación

Esleipen proposamena arrazoituta ebazpenaren bidez erabakiko du kontratazio-organoak. Ebazpen hori izangaieki edo lizitazailerik jakinaraziko zaie, eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da.

La propuesta de adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada que será notificada a los/las candidatos/as o licitadores/as y será publicada en Portal de Contratación de Navarra.

Kontratazio organoak ekonomikoki hoberena den eskaintza aurkeztu duen lizitazailerik errekerituko dio, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita, honako agiri

El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la oferta económicamente más ventajosa para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que

hauek aurkezteko: bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen agiria, kontratua gauzatzeko hitzeman dituen bitartekoak benetan badituela egiaztatuko duen agiria; eta behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.

15. Behin betiko bermea

Eskaintza hoberena aurkeztu duen lizitatuak behin betiko bermea eratu duela egiaztatu beharko du. Bere zenbatekoa 2.000 €koa izango da.

Behin betiko berme hori ondorengo moduetatik edozeinetan eratu ahal izango da:

- a) Dirutan edo Zor Publikoko baliotan, kasu bakoitzean, Lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idazpena duten balioen ibilgetze-ziurtagiriak erakunde hauetakoren batean gordailutu behar dira: Gordailuen Kutxa Nagusian, edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ordezkarietako sukurtsaletan, edo kontratugile izan eta ondorioen onuradun diren autonomia-erkidegoetako edo toki-entitateetako haren pareko kutxa edo establezimendu publikoetan, Lege hori garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan.
- b) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean gordailatu behar da.

hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente.

15. Garantía definitiva

El licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa deberá acreditar la constitución de la garantía de por importe se 2.000 €.

Esta garantía podrá prestarse en alguna de las siguientes formas:

- a) En efectivo o en valores de Deuda Pública, con sujeción, en cada caso, a las condiciones establecidas en las normas de desarrollo de esta Ley. El efectivo y los certificados de inmovilización de los valores anotados se depositarán en la Caja General de Depósitos o en sus sucursales encuadradas en las Delegaciones de Economía y Hacienda, o en las Cajas o establecimientos públicos equivalentes de las Comunidades Autónomas o Entidades locales contratantes ante las que deban surtir efectos, en la forma y con las condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.
- b) Mediante aval, prestado en la forma y condiciones que establezcan las normas de desarrollo de esta Ley, por alguno de los bancos, cajas de ahorros, cooperativas de crédito, establecimientos financieros de crédito y sociedades de garantía recíproca autorizados para operar en España, que deberá depositarse en los establecimientos señalados en la letra

c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzailer batek. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean aurkeztu behar da.

Bermea ez da itzuli edota suntsituko kontratua modu egokian gauzatu arte eta bermearen epea bukatu arte.

16. Kontratuaren esleipena

Behin eskatutako dokumentazioa jasota, kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du agiriak jaso eta hamar egun balioduneko epean.

Ebazpen hori izangaiei edo lizitatzaileriei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da.

Kasu orotan, jakinarazpenak nahitaez azaldu beharko du beharrezkoa den informazioa, bai kanpoan utzitako lizitatzaileriek bai baztertutakoek esleipen erabakiaren aurka behar bezala arrazoitutako errekurtsioa aurkeztu ahal izan dezaten.

Jakinarazpena, jasotzaileak hori jaso duela ziurtatzea ahalbidetzen duen edozein modutan egin daiteke. Bereziki, posta elektronikoz egin daiteke, hautagaiek edo lizitatzaileriek euren eskaintzetan adierazitako helbidera bidaliz.

17. Kontratua formalizatzea

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 93.2.a) artikuluan

a) anterior.

c) Mediante contrato de seguro de caución, celebrado en la forma y condiciones que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan, con una entidad aseguradora autorizada para operar en el ramo. El certificado del seguro deberá entregarse en los establecimientos señalados en la letra a anterior.

La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato.

16. Adjudicación del contrato

Recibida la documentación solicitada, el órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los diez días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

La adjudicación se notificará a los candidatos o licitadores y, simultáneamente, se publicará en el Portal de Contratación de Navarra.

La notificación deberá contener, en todo caso, la información necesaria que permita al licitador excluido o candidato descartado interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación.

La notificación se hará por cualquiera de los medios que permiten dejar constancia de su recepción por el destinatario. En particular, podrá efectuarse por correo electrónico a la dirección que los licitadores o candidatos hubiesen designado al presentar sus proposiciones.

17. Formalización del contrato

Conforme a lo establecido por el artículo 93.2.a) de la Ley Foral 6/2006 de Contratos

xedatutakoarekin bat, esleipenaren eraginkortasuna etenean egonen da 10 egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua formalizatuko da esleipena jakinarazi eta hurrengo hamabortz egun baliouduneko epean eta agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara sarbidea izateko.

Esleipendunak eska dezake kontratua eskritura publikoan jasotzeko. Kasu horretan, eragindako gastuak bere kontura izango dira.

18. Konfidentzialtasuna

Esleipena iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileri eman beharreko informazioari buruz urriaren 30eko 30/2007 Legearen xedapenek diotena baztertu gabe, eskaintzarekin igorritako informazioa sekretupekoa dela ebatzi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Kontratazio organoek ezin izango dute informazio hori zabaldu haien baimenik gabe.

Betebehar beretsua du kontratistak kontratua jaso orduko duen informazioarekiko, kontratuan bertan edo pleguetan ezarritakoagatik edo informazioaren ezaugarriengatik hala egiteko eskatzen bazaio. Betebehar horrek bost urte iraungo du informazioa jasotzen den unetik, pleguek edo kontratuak epe luzeago bat ezartzen ez badute.

19. Kontratuaren arduraduna

Kontratazio organoak kontratuaren arduraduna izango den pertsona bat

Públicos (modificada por la Ley Foral 3/2013), la eficacia de la adjudicación quedará suspendida durante el plazo de 10 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación.

La formalización del contrato en documento administrativo se efectuará dentro de los quince días hábiles siguientes a contar desde la fecha de la notificación de la adjudicación; constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público.

El contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

18. Confidencialidad

Sin perjuicio de las disposiciones de la Ley 30/2007, de 30 de Octubre relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que debe darse a los candidatos y a los licitadores, éstos podrán designar como confidencial parte de la información facilitada por ellos al formular las ofertas, en especial con respecto a los secretos técnicos o comerciales y a los aspectos confidenciales de las mismas. Los órganos de contratación no podrán divulgar esta información sin su consentimiento.

De igual modo, el contratista deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato a la que se le hubiese dado el referido carácter en los pliegos o en el contrato, o que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal. Este deber se mantendrá durante un plazo de cinco años desde el conocimiento de esa información, salvo que los pliegos o el contrato establezcan un plazo mayor.

19. Responsable del contrato

El órgano de contratación podrá designar una persona responsable del contrato.

izendatu ahal izanen du.

20. Lanen programa

Gehienez **hamar eguneko** epean, esleipenaren jakinarazpena hartzen dutenetik, hornidura eman beharko du.

21. Laneko segurtasun eta osasun programa

Esleipenaren jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita **hamabost egun naturaleko** epean kontratistak kontratazio organoari aurkeztuko dio laneko **segurtasun eta osasun programa**.

22. Epeak

Esleipendunak kontratua betetzeko ezarritako epe osoa bete beharko du; baita epe partzialak ere, halakorik ezarrita baleude.

23. Kontratua ez betetzeagatiko zigorrak kontratistari

Kontratistari zigorrak ezarriko zaizkio ondoren azaldutakoetakoren bat egiten duenean:

a) Exekuzioko baldintza bereziak ez betetzea. Plegu honetan zehaztutako exekuzio baldintzetako baten bat ez betetzeak honako zigor hauek ekarriko dizkio kontratistari:

- Arau orokor gisa, haien zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 1 izango da, betiere, kontratazio organoak ez-betetze larria edo oso larria dela arrazoitzen eta adierazten ez badu; kasu horietan % 5 edo gehienez % 10era artekoa izango da, hurrenez hurren. Ez-betetzea behin baino gehiagotan egitea aintzat hartu ahal izango da larritasuna

20. Programa de trabajos

En el plazo de **diez días** como máximo, contados a partir de la fecha en que les sea notificada la adjudicación, deberán prestar el suministro.

21. Plan de seguridad y salud en el trabajo

En el plazo de **quince días naturales** desde la notificación de la adjudicación el contratista presentará el **Plan de seguridad y salud** en el trabajo.

22. Plazos

El adjudicatario estará obligado al cumplimiento del plazo total fijado para la realización del contrato, así como de los plazos parciales que, en su caso, se hubieran establecido.

23. Penalizaciones al contratista por incumplimiento de contrato

Se impondrán penalidades al contratista cuando incurra en alguna de las causas previstas a continuación:

a) Por incumplimiento de las condiciones especiales de ejecución. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones de ejecución establecidas en este pliego dará lugar a la imposición al contratista de las siguientes penalidades:

- Como regla general, su cuantía será un 1% del importe de adjudicación del contrato, salvo que, motivadamente, el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrán alcanzar hasta un 5% o hasta el máximo legal del 10%, respectivamente. La reiteración en el incumplimiento podrá tenerse en cuenta

neurtzeko garaian.

- Zigor horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira zuzenean; bestela bermetik, Sektore Publikoko Kontratuen 196.8 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Esleipendunak exekuzio baldintza bereziak betetzen dituen ala ez egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratuaren exekuzio aldian, edozein unetan.

b) Atzerapenagatik. Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzerapena eragingo balu, amaierako epeari dagokionez edo ezarritako epe partzialei dagokienez, Sektore Publikoko Legearen 196. artikuluan ezarritakoa beteko da, zigorrak ezartzeko.

24. Azpikontratazioa

Esleipendunak kontratuaren burutzapen partziala hirugarrenekin kontratatuko balu, hori SPKL-ko 210. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da, eta azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak SPKL-ko 211. artikuluan xedatutakoari doituko zaio.

25. Kontratua betetzea

Kontratuaren amaierarako Sektore Publikoaren Legearen 218. artikuluan ezarritakoa beteko da, baita Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 163. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa ere.

26. Kontratua gauzatzeko orduan bete beharreko hizkuntza baldintzak

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak bi hizkuntza ofizialetan egonen dira: euskara eta gaztelera. Baldintza hau betetzen ez

para valorar la gravedad.

- Se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse al contratista, o sobre la garantía, conforme al artículo 196.8 de la Ley de Contratos del Sector Público.

El cumplimiento por el adjudicatario de las condiciones especiales de ejecución podrá verificarse por el órgano de contratación en cualquier momento durante la ejecución del contrato.

b) Por demora. Cuando el contratista, por causas que le fueran imputables, hubiera incurrido en demora, tanto en relación con el plazo total como con los plazos parciales establecidos, se estará a lo dispuesto en el artículo 196 de la Ley de Contratos del Sector Público en cuanto a la imposición de estas penalidades.

24. Subcontratación

La contratación por el/al adjudicatario/a de la realización parcial del contrato con terceros estará sujeta a los requisitos establecidos en el artículo 210 LCSP, así como el pago a subcontratistas y suministradores deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 211 LCSP.

25. Cumplimiento del contrato

La recepción del contrato se regirá por lo establecido en el artículo 218 de la Ley de Contratos del Sector Público y en los artículos 163 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

26. Condiciones lingüísticas en la ejecución del contrato

Los rótulos, avisos, señalizaciones y otras comunicaciones de carácter general se realizarán en las dos lenguas oficiales; euskera y castellano. El incumplimiento de

badu, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 196. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.

27. Kontratua bertan behera uztea

Kontratua amaitzeko Nafarroako Foru Komunitateko araudia jarraituko da eta baita ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikulutik 208ra ezarritakoa beteko da oro har.

28. Bermealdia

Bermearen epea **urtebetekoa** izango da. Epe hori kontratua bukatzen den datatik aurrera hasiko da.

29. Likidazioa

Aurreko klausulak zehazten duen berme-epea igaro ostean, kontratuaren likidazioari ekingo zaio Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 169. artikulua jarraiki.

30. Administrazioaren eskumenak

Kontratazio-organoak honako eskumen hauek ditu, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 194. artikuluan xedatzen duenaren arabera:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Kontratua betetzeari dagozkion zalantzei buruzko erabakiak hartzea.
- c) Kontratua aldatzea, interes publikoari dagozkion arrazoiak direla

este requisito lingüístico dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 196 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato. La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad.

27. Resolución del contrato

La resolución del contrato se regirá por lo establecido con carácter general en la normativa propia de la Comunidad Foral de Navarra, además de en los artículos 205 a 208 de la Ley de Contratos del Sector Público.

28. Plazo de garantía

El plazo de garantía será de **un año** y comenzará a partir de la fecha de la finalización del contrato.

29. Liquidación

Transcurrido el plazo de garantía a que se refiere la cláusula anterior se procederá a la liquidación del contrato conforme a lo dispuesto en el artículo 169 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

30. Prerrogativas de la Administración

El órgano de contratación, de conformidad con el artículo 194 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, ostenta las siguientes prerrogativas:

- a) Interpretación del contrato.
- b) Resolución de las dudas que ofrezca su cumplimiento.
- c) Modificación del contrato por razones de interés público.

medio.

d) Kontratua suntsiaraztea eta erabaki horien ondorioak zehaztea.

d) Acordar la resolución del contrato y determinar los efectos de ésta.

31. Jurisdikzioa


Kontratua garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak kontratazio organoak konponduko ditu. Hura suntsiarazteko hartutako erabakiak administrazio bidea amaituko dute, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bitartez aurkaratu ahal izango dira. Baita ere Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazioaren Auzitegian ahalko dira tartekatatu.

31. Jurisdicción

Las cuestiones que puedan plantearse durante el desarrollo del contrato serán resueltas por el órgano de contratación. Los acuerdos adoptados para su resolución pondrán fin a la vía administrativa, y podrán ser impugnados ante la Jurisdicción contencioso-administrativa o ante el Tribunal Administrativo de Contratos Públicos de Navarra.

Lesaka, 2017ko urriaren 23	Lesaka, 23 octubre de 2017.
El alcalde:	Alkatea:

José Luis Echeagaray Andueza



I. ERANSKINA

a) Proposamen ekonomikoa, eredu honi egokitua:

..... jaunak/andreak,
bizilekua
(kalea eta zk.) (posta-kodea)
helbidean duenak, NAN zk.,
telefono zk. eta
helbide elektronikoa dituenak
bere gaitasun juridikoaren eta jarduteko
gaitasunaren jabetza osoa izanik, bere
izenean (edo jauna/andrea,
..... posta-kodea, telefono zk.
..... eta NAN edo IFK
..... —persona fisikoa edo
persona juridikoa den kontuan izanik—
dituenaren ordezkari gisa), Lesakako Udalak
deitu duen hornidura eta asistentzia

ANEXO I

a) Proposición económica ajustada al siguiente modelo:

D.....
con domicilio
en.....
CP....., DNI nº.....,
teléfono..... e-
mail.....
en plena posesión de su capacidad jurídica
y de obrar, en nombre propio (o en
representación
de.....
CP.....,
teléfono....., y DNI o
CIF (según se trate de persona física o
jurídica) nº.....),
enterado del procedimiento contractual

kontratuaren berri izanda, kalefakziorako erregaia (biomasa) hornitzeko eta ekipoak mantentzeko, honako hau aitortzen dut:

1. Gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala,€ gehi€-ko %-ko BEZari dagokiona (hau da.....€, BEZa barne) ekoizturiko kilowat-orduko. Kantitate honetan sartzen da bai biomasaren hornidura, bai ekipoen mantenimendua. Eta prezioan sartutzat joko dira kontzeptu guztiak, maila fiskaleko edozein zerga, gastu, tasa eta ariel barne, baita kontratistaren industria etekina ere.

2. Kontratu hau eraenduko duen Berariazko Klausula Administratiboen Plegua ezagutzen dudala, eta berariaz eta guztiz onartu eta ontzat hartzen dudala.

3. Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela ireki, instalatu eta lanean aritzeko indarreko araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak.

.....-n, 2017ko(r)en ...(e)an.
Sinadura:

convocado por el Ayuntamiento de Lesaka para el suministro de combustible para calefacción (biomasa) y mantenimiento de los equipos, declaro:

1º) Que me comprometo a su ejecución por el precio de.....€, más.....€, correspondientes al 21 % de IVA, (lo que supone un total de€, IVA incluido) por kilovatio/hora producido. En esa cantidad se incluye tanto el suministro de biomasas, como el mantenimiento de los equipos. Deben entenderse comprendidos en el precio todos los conceptos, incluyendo los impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial del contratista.

2º) Que conozco el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.

En....., a.....de.....de 2017..
Firma: